



Urriaren 14an, Beldur Barik! lehiaketaren 11. edizioa aurkeztu da Orozkon, gazteek gizonen eta emakumeen egungo desberdintasun-egoerari nola aurre egiten dioten erakusten duten askotariko arte-adierazpenak aitortu, balioetsi eta bultzatzeko, baita errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako portaerak ere.

Ekimenaren helburua da mezu eta erreferente positiboak sortzea, gogoetak eta eztabaidak bultzatze aldera, nesken ahalduntzetik eta mutilek matxismoaren aurka duten konpromisotik abiatuta.

12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilek har dezakete parte, lau kategoriatan, eta modu digitalean aurkeztuko dira lanak: olerkiak, argazkiak, gogoeta-testuak, bideoklipak, fotomuntaketak, fotonobelak, dantza, film laburrak...

Kategoria guztietarako sariak daude.

Gehiago jakiteko: <https://www.beldurbarik.eus/eu/>

